

# ZAINZEN EREDU PUBLIKO-KOMUNITARIO BATERANTZ. ESS-AREN BIDEZ Aurrera egiteko neurrien proposamena

2024-09-23ko bertsioa

Ekonomia Sozial eta Solidarioa (aurrerantzean, ESS) eredu ekonomiko hegemonikoaren ordezeko proposamena da, eta, beraz, zalantzan jartzen ditu sistema kapitalistaren, patriarkalaren, kapazitistaren eta kolonialaren funtsezko elementuak, hala nola indibidualismoa, hazkunde mugagabea eta emakumeen eta planetaren esplotazioa. Gero eta nabarmenagoa da dimentsio anitzeko krisi batean murgilduta dagoen sistema biozida batean bizi garela, eta **zaintzen krisia** alderdi endemikoenetako bat duela.

Asko dira baieztapen horiek justifikatzen dituzten alerta-seinaleak. Batetik, **sistema publiko eskasa** dugu: pertsonen arreta- eta zaintza-zerbitzuak gabezia ugari ditu. Eta halako zerbitzuen **pribatizazioa eta merkantilizazioa**, irabaziak ardatz dituzten enpresen mesedetan. Bestetik, lan horiei —ordainduak izan ala ez— lotutako emakumeen **esplotazioa eta prekarizazioa** ditugu. Eta **gizarte-desberdinkerien** hazkundera, erantzun errektiboz betetako agertoki batean. Bai eta, zaugarritasunik handieneko pertsonen **arretan dauden gabeziak** ere, asistentzialismoan oinarritutako



**REAS**  
EUSKADI



**ekosolfem**  
REAS EUSKADI

eredua dela eta, eta isolamenduak, nekeak, nahi gabeko bakardadeak eta osasun mentalak eragindako arazoak, gero eta errotuago daudenak, ere.

Sintoma horiek guztiak ez dira akzidentalak, ezta loturarik gabeak ere; aitzitik, **zaintzen gizarte-antolaketa bidegabe** bati lotuta daude, hainbat menderatze-sistemaren arteko elkarrekintzak zeharkatuta (zisheterosexismoa, kapazitismoa, kapitalismoa, kolonialismoa edo arrazakeria). Testuinguru horretan, zaintzak desberdinkeria-aren funtsezko bektore gisa kronifikatu dira.

Halere, dokumentu honek ez du arreta jartzen diagnostikoan<sup>1</sup>, baizik eta proposamenean<sup>2</sup>, eta REAS Euskadik, ESSaren parte den heinean, bere gain hartzen du eredu bidegabe hori eraldatzeko erantzukizuna. Horregatik, hurrengo orrialdeetan hainbat neurri azalduko dira, zaintzarako eskubide kolektiboan eta **zaintza-sistema publiko-komunitario feministan** aurrera egiten laguntzeko.

1

## ZEIN DA GURE PROPOSAMENAREN ESPARRUA?

Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESSa) **bizitzaren jasangarritasunaren** aldeko ikuspegiarekin lerrokatzen da. Hau da, oso modu sintetikoan adierazita, oinarritzko bi printzipio ditu abiapuntu: **interdependentzia** (pertsonek guztiok dugu zaintza eman eta jasotzeko beharra) eta **ekodependentzia** (gure bizitzak ingurune bizi batean gertatzen dira). Jarrera horrek lotura zuzena du zaintza eskubide kolektibotzat hartzeko behararekin.

**Eskubide** bati buruz ari bagara, konpromiso bat dago atzean: pertsona guztiok aukera izatea, gure nahi eta premietara egokitutako kalitatezko zaintzak jasotzeko, betiere aitortuz zer-nolako zaintzak nahi ditugun (edo ez ditugun nahi)

---

<sup>1</sup> Arlo honen inguruan egin diren ikerketa eta azterlanetan sakontzera animatzen dugu, oso argigarriak baitira zaintzak desberdinkeria-bektore bihurtu dituzten egiturako arazoak ulertzeko. Eta, gainera, zenbait gako eskaintzen dizkigute alternatiba eraldatzaile eta emanzipatzaileak asmatzeko. Zaintzen mahai aholku-emaielaren esparruan kolektiboki landu eta Emakumeen Institutuak argitaratutako [\*Documento de bases para los cuidados\*](#) (2023) dokumentuak ezagutza horiek biltzen ditu, bai eta horri buruzko aurretiazko lan asko ere bibliografian.

<sup>2</sup> Reas Euskadiko Ekonomia Solidario eta Feminista (EkoSolFem) taldean egindako gogoeta-prozesua jasotzen dute orrialde hauek. Prozesu horretan, bi lantegi egin ziren 2024ko lehen hiruhilekoan. Era berean, ekonomia alternatibo eta solidarioaren barruan gai honen inguruan egindako guztia ere hartzen dute abiapuntu. Azpimarratzekoa da oraintsu argitaratutako lan hau: [\*Gestión público-comunitaria de los cuidados bajo la óptica de la Economía Social y Solidaria. Guía de buenas prácticas y Diagnóstico\*](#) (2023).

erabakitzeko autonomia eta gaitasuna. Aldi berean, beharrezkoa da zaintzaileak baldintza duinetan eta nahi duelako egiten duela bermatzea.

Eskubidearen izaera **kolektiboaz** badihardugu, garbi dago inplikaturako eragile guztien erantzukizuna dela, eta sarbidea ezin dela desberdina izan (generoaren, klase sozialaren, adinaren edo jatorriaren arabera, aldagai batzuk aipatzearen), eta ezin dela beste batzuen bizkar utzi. Horrek esan nahi du aukera izan behar dugula zaintza horien gaineko ardura zer baldintzatan hartu nahi dugun zehazteko (eta aukeratzeko), kolektibo jakin batzuek beren betebeharrak indibidual, komunitario eta sozialetik libratzeko dituzten pribilegioak desnaturalizatuz joateko. Eta, jakina, ezin dugu ahaztu gure inguruneak mantentzeko eta konpontzeko beharra, bitza bizigarriak ahalbidetzeko. .

## 2

## NOLA EGINGO DUGU?

Zaintza-hornidura **lau eragileren inguruan antolatzen da sozialki**: erakundeak, merkatua, sare komunitarioak eta familiak. Aipatu ditugun zaintza-krisien alertek erakusten digute desorekatuta dagoela eragile horien arteko erantzukizun-banaketa: badakigu familiak (familietakoko emakumeak, gehienbat) eta merkatua (merkatuan lan egiten duten emakumeak) gehiegizko ordezkartza dutela.

Beraz, banaketa hori birpentsatu egin beharko litzateke, eredu justu eta berdinzale batera bideratzeko. Aldaketa hori gauzatzeko, beharrezkoa da lau dinamika hauek gainditzea, horietan baitautza eragiten diguten desberdinkerien kausetako batzuk: familismoa, feminizazioa, pribatizazioa eta irabazien bilaketa. Hori horrela, lau bide proposatzen ditugu, zaintzarako eskubide kolektiboa bermatuko duen etorkizun emantzipatzailean aurrera egiteko, erantzunkidetasun publiko-komunitariotik:

1. **DEFAMILIARIZATZEA.** Ulertzea zaintza-lanak ez direla familiara mugatu behar. Erantzukizun hori norberaren borondatez eta elkarrekikotasun-baldintzetan gauzatu behar da, eta eman eta jasotzen diren zaintzak askatasunez aukeratu behar dira, pertsona guztientzako duintasuna eta sostengua bermatuz.

Pluralean hitz egiten dugu familiez, ez bakarrik eredu heteronormatibo itxi batetik aldentzeko, baita aukeratutako familiak eta zaintzak sarean emateko gaitasuna aldarrikatzeko ere.

Desfeminizatzeak berekin dakar gizonen ere zaintzak ematea etxean, arlo publikoan eta arlo komunitarioan.

2. **DEFEMINIZATZEA.** Emakumeak zaintzaren arduradun nagusitzat dituen lotura naturalizatua haustea. Desnaturalizazio horrek berekin dakar zaintza-zereginak lan gisa aitortzea; izan ere, denbora, gaitasunak eta trebetasunak eskatzen dituzten zereginak dira horiek, eta, beraz, baloratu egin behar dira. Aitorpen hori ordaindu gabe egiten diren lanetan (bereziki, familietan eta komunitatean) aplikatu behar da, baita ordainduta egiten direnetan ere, merkatura ateratzen direnean. Lanbide-esparru horri dagokionez, aipatu behar da etxeko eta zaintza-zerbitzuetako enpleguak — horietako asko administrazio publikoak azpikontratatuak— ezegonkorrak eta ikusezinak direla, eta, beraz, funtsezkoa dela emakume zaintzaile profesionalen baldintza material eta laboralak hobetzeko premian arreta jartzea.
3. **PUBLIKO EGITEA.** Erakundeek beren gain hartu behar dute zaintza-lanetan duten erantzukizun zuzena, herritar guztien premiak betetzen direla bermatzeko, bai unibertsaltasunari begira (mundu guztiarentzat), bai behar bereziak dituzten kolektiboari begira (haurrak, desgaitasunen bat duten pertsonak, adinekoak...). Horretarako, zaintzak zeharkakotasunez, luze-zabalean eta osorik ulertu behar dira. Hau da, ez bakarrik tradizioz zaintzekin lotutako zerbitzuen ikuspegitik, baita hirigintzaren, merkataritzaren, kulturaren eta garapen komunitarioaren ikuspegietatik ere. Azken horrek komunitatearekin eta auzoekin aliantzak bilatzera garamatza, tokikoa eta hurbilekoa aldarrikatzera, eta zaintza-lanetan betetzen duten egitekoa aitortzera.
4. **IRABAZI-ASMOA DESAGERRARAZTEA.** Irabazizko merkatuak zaintzetatik kanpo egon behar du, langileen, zerbitzua erabiltzen dutenen edo bien kontura ateratzen baitira posibleak. Beraz, zerbitzuaren azpikontratazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde bidez egin behar da, ekonomia alternatibo eta solidarioaren merkatu soziala osatzen duten erakunde bidez, alegia. Lurraldeetan errotutako erakundeak izan behar dira, kalitatezko eta hurbileko zaintzak bermatzeko modukoak eta askotariko premia eta bizi-uneei erantzuteko gaituak. Ezin dugu ahaztu ESSko erakundeek bat egiten dutela (dugula) printzipio hauek betetzearekin: ekitatea, lan duina, lankidetzeta, jasangarritasun ekologikoa, aberastasunaren banaketa justua eta ingurunearekiko konpromisoa.

Logika horietan aurrera egitearen aldeko apustuari esker, aukera dugu inplikaturako eragileak berrantolatzeko eta arreta arlo **publiko** eta **komunitarioan** jartzeko, zaintzak emateko eredu berriak funtsezko espazioak diren aldetik. Publikoa diogunean, hauxe esan nahi dugu: kalitatezko zaintzako baliabide eta zerbitzuetarako sarbide zuzena bermatu behar dute administrazio publikoek, baita zaintza-lana baldintza material eta sinboliko duinetan egiten dela ere. Hau da, sistema publikoak bakarrik berma dezake **unibertsaltasuna**.

Komunitarioa diogunean, berriz, pertsona batzuek guztion ongia bilatzeko ekintzak gauzatzen dituzten esparruaz ari gara. Bertan, gertutik erantzuten zaie pertsonen premiei, pertsonak berak partaide direla. Bestela esanda, pertsonen beharrik zehatzenetara egokitutako **espezifikotasuna** sustatzeko gai den esparrua da. Esparru komunitario horretan bi formula sartzen dira: bata ez dago merkataritza-trukean oinarrituta, eta auzo- eta komunitate-sare autogestionatuek osatzen dute. Bestea diru-trukean oinarritzen da (ez du zerikusirik irabazi-asmoarekin), eta hor daude ESSaren merkatu soziala osatzen duten erakunde eta entitateak, askotariko zaintza-baliabideak eskaintzeko.

ESSa arlo komunitarioaren parte da, eta errotutako eta irabazi-asmorik gabeko zaintza-baliabideak bermatzeko aukera delako nabarmentzen da.

Halere, garrantzi handikoa da bi eremu horiek bereizi indartzea, eta funtsezkoa da bien arteko harremana eraldatzea. Hortxe sortzen da arlo publikoaren eta komunitarioaren arteko artikulazioan **erantzunkidetasuna** oinarritzeko itsasgarri gisa erabiltzeko beharra.

Nola irudikatzen dugu erantzunkidetasun hori? Erantzunkidetasuna sustatzeak **espiral baten irudia** ekartzen digu gogora. Espiral horrek lerro kurbatu bat du, zati guztiak konektatzen dituen lerro bat. Hain zuzen ere, lotura bat dago barrualdeko eta kanpoaldeko eremuen artean. Metafora horrek aukera ematen digu zaintzak eragileen arteko harremanaren bidez proiektatzeko, eta konpartimentu estankoetan oinarritutako ikuspegia baztertzeko, zeinetan zerbitzuak, eremuak eta pertsonak erabat bereizita kokatzen baitira. Norbanakoen, familien, komunitatearen eta arlo publikoaren artean jarraitutasun-harreman bat ezarriko litzateke, eta inplikaturako alde guztiek norberaren nahiz besteen zaintzen gaineko erantzukizunaz arduratzeko konpromisoa hartuko lukete. Bestalde, harreman horretan ez litzateke irabazi-asmorik egongo, eta diru-trukea zaintza-lanez arduratzen diren pertsonak eta kolektiboak duintzearekin eta balioestearekin egongo litzateke zuzenean lotuta. Lan hori ez dago zertan

profesionalizatuta egon. Horregatik, **ESSak lehentasunezko zeregina izango luke** eredu berri horretan<sup>3</sup>.

Zergatik? ESSak ekimen sozioekonomikoen unibertso bat osatzen duelako, ohiko merkatu neoliberalaren ordezkoa, irabazi ekonomikoaren gainetik gizartearen ongizatea lehenesten duena. Horrek ingurunearekiko konpromisoa ere badakar, eta, horrela, partaide den **komunitatearen funtsezko osagai** bihurtzen da ESSa.

### 3 ZER NEURRI SARTZEN DIRA GURE PROPOSAMENEAN?

Aurreko guztia kontuan hartuta, gure proposamena **bi jarduera-eremutan** antolatzen da: bata, arlo publikoa sendotzera, berrikustera eta/edo eraldatzera bideratuta dago; bestea, berriz, arlo publikoaren eta komunitarioaren arteko harremana sakontzera. Bi jarduera-eremu horietan **zortzi neurri** prestatu ditugu, erakundeei begira. ESSak (lurraldeko eragile ekonomiko, politiko eta sozial gisa) duen zeregina antolatzen laguntzen digute, arlo publikoan, esparru komunitarioan eta bien arteko harremanean eragitea helburutzat hartuta. Arlo publikoaren kasuan, ESSak bere gain hartzen du administrazioen aurrean bultzatzeko, eragiteko eta presio egiteko lana. Arlo publiko-komunitarioaren kasuan, ekintza zuzenaren alde egiten da, bereziki, diru-trukean oinarritutako formuletan.

Zortzi neurri horiek ez dute sailkapen estankorik osatzen; aitzitik, kategoriak porotsuak dira, eta ekintza asko **elkarri lotuta** daude. Aipatu behar da ez ditugula jarduera posible guztiak bildu edo zehaztu nahi. Maila administratiboan eta horietako bakoitzaren eskumenen xehetasunetan ere ez gara sartu. Oro har, erantzunkidetasun publiko-komunitarioko eredu feminista eraikitzeke ibilbide-orri gisa pentsatu da dokumentua, zaintzarako eskubide kolektiboan aurrera egiteko asmoz. Azken finean, etengabe eraikitzen ari den proposamen dinamiko bat da.

---

<sup>3</sup> Eredu honen proposamenak beste prozesu batzuetan egindako gogoeta kolektiboak ditu oinarri. Beraz, gai horretan eta beste batzuetan sakontzeko, dokumentu hauek kontsultatzea proposatzen dizuegu: [\*Derivas feministas hacia el buen vivir\*](#) (2020), Colectiva XXKtaldeak egina, eta [\*Zaintzako sistema publiko-komunitario feminista baterantz\*](#) (2022), Bizitzak Erdigunean – Euskal Herriko Koordinadora Feministak egina.

## A

**ARLO PUBLIKOA SENDOTZEKO, BERRIKUSTEKO ETA/EDO ERALDATZEKO NEURRIAK**

1. **ZAINTZA-ZERBITZUEN IZAERA PUBLIKOA SENDOTZEA.** Irabaziak dituzten enpresa azpikontratatuak kudeaturiko zerbitzuak berreskuratzea, eta martxan jarriko diren zerbitzu berrietan eredu publiko-komunitario baten alde egitea.
2. **ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK KONTRATATZAILE GISA DUEN ROLA BIRFORMULATZEA, ZERBITZUAK AZPIKONTRATATZEN DITUENEAN.** Horretarako, erosketa publiko arduratsua egin behar da, azpikontratazioetan klausula sozialak aplikatu, edo zerbitzu horiek auditatu eta kontrolatu, beste estrategia batzuen artean.
3. **TOKI-ADMINISTRAZIOAK LEHENTASUNEZKO JARDUN-EREMU GISA BULTZATZEA,** eta lurraldean errotuta dauden hurbileko zaintza-zerbitzuak ematean udalek duten garrantzia aitortzea. Horien garrantzia indartu egin daiteke, beste lurralde-maila batzuekin artikulatuta eta koordinatuta.

## B

**ARLO PUBLIKOAREN ETA KOMUNITARIOAREN ARTEKO HARREMANA SAKONTZEKO NEURRIAK***(ESSA ESPAZIO KOMUNITARIO HORREN PARTE DELA ABIAPUNTUTZAT HARTUTA)*

4. **ZAINTZARAKO ESKUBIDE KOLEKTIBOAZ SENTSIBILIZATZEA, GOGOETA EGITEA ETA KONTZIENTZIA HARTZEA.** Egungo eredu zalantzan jartzeaz ari gara, zaintzak politizatzeari (arazo publiko bihurtzeaz) edo gure proposamenetan erreproduzitzen ditugun botere-harremanekiko (auto)kritikoak izateaz.
5. **LURRALDEAK PLANIFIKATZEA, ZAINTZARAKO ESKUBIDE KOLEKTIBOAREN ESPARRUTIK.** Horrek esan nahi du zabaldu egin behar dela zaintza-hornidurari buruzko begirada, eta zaintzetatik abiatuta ekintza instituzional orori (berezi tokikoari) begirada integrala eta zeharkakoa gehitu behar zaiola.
6. **ESSA LEHENESTEA** administrazioetik, diru-trukea barne hartzen duen arlo komunitarioaren bultzatzaile gisa. Hemen kontratazio publiko arduratsua ari gara, baina baita ESSa indartu eta babesteaz eta horrelako erakundeak sortzeaz eta bultzatzeaz ere.
7. **ETXEKO LANEAN ESKU HARTZEA,** bidezko lan-baldintzen sustapenean rol aktiboa hartuz kontratatzeke orduan, jarduera (ordaindua edo ordaindu gabea) duinduz eta sektoreko langileei laguntzeko baliabideak aktibatuz. Horri dagokionez, garrantzitsua da jada antolatuta dauden etxekeko langileen elkarteekin harremana sendotzea.

8. **ARLO KOMUNITARIOA ZENTZU ZABALEAN INDARTZEA, LEHENDIK DAGOENA** (eskolak, lehen mailako arreta-zentroak, auzoguneak) **AINZATETSIZ ETA SUSTATUZ, ETA AUZOETAN EKONOMIA KOMUNITARIOKO ESPERIENTZIAK** (hiri-baratzeak, truke-merkatuak, denbora-bankuak...) **BULTZATUZ EDO SAREAK ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA INDARTUZ**. Hemen garrantzitsua da azpimarratzea komunitatea sustatzeko ez dela beharrezkoa dirua ematea edo profesionalizatzea soilik, beste laguntza-mota batzuk ere badaudela (adibidez, espazioak lagatzea, kontu burokratikoak erraztea edo, besterik gabe, administrazioak besteei egiten uztea).

4

## SAKONTZEKO: EKINTZA-SORTA

Jarraian, zortzi neurriak ekintzetan zehazten dira, ESSak (eta zehazki REAS Euskadik) zeharka edo zuzenean eragin dezakeen ekintzetan. Berriro diogu: eraikitze-bidean den ekintzen sorta bat da, zaintzarako eskubide kolektiboan aurrera egitea ahalbidetuko digun zaintza-eredu publiko-komunitario feminista zehazteko beharrezkoak diren ekimenak agortzen ez dituenak.

A

## ARLO PUBLIKOA INDARTZERA BIDERATUTAKO EKINTZAK

### Zaintza-zerbitzuen izaera publikoa sendotzeko

1. Orain azpikontrataturako enpresen bidez (egoitzak, eguneko zentroak, etxez etxeko arreta-zerbitzua eta abar) kudeatzen diren zaintza-zerbitzuak publiko bihurtzearen alde egitea.
  - Zerbitzuak berriro udalaren esku uzteko estrategiak garatzea, ematen den zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta kontratatutako langileen baldintzak hobetzeko.
  - Pertsonen zaintza-premiei erantzungo dieten kalitatezko zerbitzu publikoak sustatzea, arreta berezia eskainiz premia espezifikoei —0-3 urtekoak, adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta abar— eta zaurgarritasun-egoera larrikoei —dibertsitate funtzionala, pobrezia, bakardadea, genero-indarkeria eta abar—.
  - Landa-eremuaren behar eta eskaera espezifikoak kontuan hartzea, eremu horrek ezaugarri duen azpiegitura- eta zerbitzu-faltari erantzungo dieten politikak garatzeko.
2. Zerbitzu berriak sortzea, plangintza- eta kudeaketa-eredu publiko-komunitarioaren alde eginez argi eta garbi.



## Administrazioak kontratatzaile gisa duen rola birformulatzeko

### 1. Kontratazio publiko arduratsua aplikatzea, zerbitzuak azpikontratatzean.

- Klausula sozialen tresna baldintza-orrietan sartzea eta garrantzi berezia ematea zerbitzuaren kalitatearekin lotutako alderdiei, hala nola kontratatutako pertsonen lan-baldintza duinei eta kontratatutako enpresak lurraldean duen errotze-mailari.
- Merkatu-erreserbak ESSko erakundeentzat dituen aukerak aztertzea, kontratu erreserbatuen tresnaren bidez.
- Eskaintza ekonomikoaren garrantzia murriztea (hau da, eskaintzarik merkeena erabakigarria ez izatea kontratuak esleitzeko zehaztutako irizpideetan).
- Eredu hori indartzeko, erosketa publiko arduratsuari buruzko prestakuntza-planak egitea, administrazio publikoetako politikari eta teknikarientzat, baita eragile sozial eta ekonomikoentzat ere.
- Kontratazioaren eremu hori arautzeko ordenantzen edo beste lege-araudi batzuen figura aztertzea.

### 2. Administrazioak auditore gisa duen zeregina betetzea, eskaintzan eta emakidan ezarritako baldintzak betetzen direla zainduz kontratu guztietan.

- Administrazioak bere gain hartzea ematen den zerbitzuaren kalitatean, prestazio-baldintzetan eta lan-baldintza duinetan duen zuzeneko erantzukizuna. Eta, beharrezkoa bada, ez-betetzeetarako zehapenak ezartzea.
- Kontratazioak ebaluatzea eta horiei jarraipena egitea.

### 3. Rol aktiboa hartzea azpikontratutako enpresetako edo zerbitzuetako langileen lan-gatazka eta eskaeretan.

## Toki-administrazioak lehentasunezko eremu gisa bultzatzeko

### 1. Zaintzen tokiko estrategiak eta tokiko mahaiak garatzea.

2. Zerbitzu asko (hurbilekoak, errotuak...) emateko orduan udalek duten garrantzia onartzea, eta eskari erantzuteko beharrezko baliabide eta gaitasunak ematea.

3. Administrazio-maila guztietako zerbitzuak antolatzea eta koordinatzea, horietako bakoitzaren potentzialtasunak aprobetxatzeko. Ildo horretan, interesgarria da, halaber, eskualdeko begirada mankomunatua aztertzea zenbait zerbitzu emateko.

### Zaintzarako eskubide kolektiboaz sentsibilizatzeko, gogoeta egiteko eta kontzientzia hartzeko

1. Eztabaidak bultzatzea eredu sozioekonomikoari buruz eta eskubideen askotariko dimentsioak (etxebizitza duina, bizi-baldintza materialak, hezkuntza...) harremanetan jartzeko beharrari buruz, zaintzak erdigunean jartzeko guztiontzat.

2. Zaintzak politizatzea eta gure praktikak zalantzan jartzea.

- Martxan dauden jardunbideak ikusaraztea (eta horiek indartzen jarraitzea): amatasun feministak, zaintzaileentzako prestakuntza eta laguntza feminista, lagunekin bizitzea...
- Familia zaintzaileentzako babes- eta partaidetza-guneak sortzea eta indartzea.
- Asistentzia-jarduerak zalantzan jartzea, pertsona guztien autonomia bermatzea eta erantzunkidetasuna sustatzea. Horretarako, elkarrizketarako guneak sortu behar dira, nola zain gaitzaten nahi dugun eta zer baldintzatan zaindu nahi dugun jakinarazteko.
- Gogoeta egitea erakundeetan (baita ESSan bertan ere) kontziliazio erantzunkidearen erronkei eta aukerei buruz.

3. Gure jardunbideetan errepika ditzakegun botere-harremanak aztertzea (begirada urbanozentrikoa ahaztu gabe).

- Prestakuntza eta sentsibilizazioa, gizonen eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna sustatzeko, bai erakundeen barruan, bai kanpoan.
- Zaintza-eremuaren feminizazioa zalantzan jartzea.

4. Kontzientziatzeko eskura duguna aprobetxatzea (auzo-batzarrak, ikastetxeak...).

### Lurraldeak planifikatzeko, zaintzarako eskubide kolektiboaren esparrutik

1. Zaintza-eremuaren partaidetzazko diagnostikoa egitea.

- Zaintzen inguruko behar, nahi eta baliabideei buruzko partaidetzazko mapak egitea.

2. Udal- eta eskualde-mailako plangintza egitea, zaintza-beharrekin lotutako alderdiak (zentzu zabal eta integralean) barne hartuta eta toki- zein lurralde-aniztasuna kontuan izanda.

- Planak diseinatu eta garatzea nahi gabeko bakardadearen aurka, mugikortasun inklusiborako, hiri-antolamendurako, 2020 agendarako eta abar, zaintza publiko-komunitarioaren ikuspegitik.
- Etxebizitza-planak bultzatzea, zaintza publiko-komunitarioaren ikuspegitik. Adibidez, erabilera lagatzeko etxebizitza-kooperatibentzat gordetzea lurzoru publikoa, alokairu sozialeko etxebizitzen parke publikoa sustatzea, belaunaldien arteko etxebizitza-ekimenak zein bestelako etxebizitza kolaboratiboak garatzea, eta etxebizitza hutsei zergak ezartzea.
- Udalerrien hirigintza-egituran zaintzak kontuan hartzea, baita udalerriek zaintzak emateko orduan duten zeregina ere.

3. Zaintza Behatokia sortzea, ikerketa-, analisi- eta ebaluazio-zentro gisa jarduteko zaintza-eremuarekin lotutako guztiaren jarraipena egiteko. Behatokia askotariko eragileek osatuko lukete —ESSa barne dela—, eta hainbat lurralde-maila egongo lirateke ordezkatura.

- Administrazioaren erantzukizunen jarraipena egiteko metodologiak eta alternatibak aztertzea, jarraipena egingarria eta eraginkorra izan dadin.

### **ESSa lehenesteko, diru-trukea barne hartzen duen arlo komunitarioaren bultzatzaile gisa**

1. Kontratazio publiko arduratsua bultzatzea ESSko erakundeen bidez.
2. Kontratuak gordetzea ESSko erakundeentzat.
3. Gizarte-ekimeneko kooperatibak sortzen laguntzea.
4. Espazio fisikoak eta baliabide tekniko eta materialak lagatzea eta/edo bideratzea, ekintzailtza sozialeko eta kooperatiboko ekimenak garatzeko.
5. ESSari laguntzeko plan espezifikoak bultzatzea (baliabideak, prestakuntza, hedapena, sentsibilizazioa eta abar).
  - Arlo publikoa espazio jakin batzuetan inplikatzeko, hala nola erosketa publiko arduratsuko foroetan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin prestakuntza-espazioak indartzen.
6. Izaera mistoko (publikoa eta soziala) kooperatiben figura aztertzea, zerbitzu komunitarioak garatzeko.

### **Etxeko lanean esku hartzeko**

1. Udalerrietako etxeko lanaren (ordainduaren zein ordaindu gabearen) egoera ezagutzea.
2. Aktiboki jardutea, esparru horretako lan-baldintzak hobetzeko.
3. Etxeko enplegua lan-baldintza bidezkoetan kontratatzeko neurriak jartzea (herritarrek kontzientziaztea, administrazioa kontratazioen bitartekari izatea eta abar).
  - Zaurgarritasunik handieneko egoerei erantzutea eta beste lurralde-maila batzuetako politikekin konexioak bilatzea (Atzerritarrei buruzko Legea, adibidez).
4. Behar adina baliabide martxan jartzea (laguntza, prestakuntza, finantzaketa eta abar) zaintza-sektoreko langileei laguntzeko, zerbitzuak ESSko enpresen bitartez antola ditzaten. Horrela, langileek beren enpresa kolektiboen kudeaketa profesionalizatu ahal izango dute, eta behar duten herritar guztiek eskura izango dute zaintza.
5. Etxeko langileen elkarteekiko harremana sendotzea eta elkarrizketarako espazioak sortzea.

### **Arlo komunitarioa zentzu zabalean indartzeko**

1. Auzo eta/edo udalerrietako sareak indartzea, komunitateek parte hartuz, eta sare/eragile horien eta administrazioaren arteko elkarrizketa erraztea.
  - Sareen sorrera sustatzea (edo, behintzat, ez eragozte), lehendik daudenak aprobetxatuz eta nolabaiteko antolakuntza duten espazioei eutsiz (eskolak, lehen mailako arreta-zentroak, auzoguneak eta abar). Sare horiek komunitateko askotariko eragileez osa daitezke, diru-trukea egon ala ez.
  - Politika publikoaren gaineko benetako erabakitze-ahalmena eta eragina duten figurak (mahaiak/foroak) aztertzea.
2. Auzoetan ekonomia eta esperientzia komunitarioak bultzatzea (hiri-baratzeak, truke-merkatuak, denbora-bankuak eta abar).
  - Zuzeneko finantzaketaren bidez (dirulaguntzak) edo diruzkoa ez den laguntzaren bidez babestea.

3. Kogestioa erraztea eragile publiko eta komunitarioen arteko harremanetan, betiere harreman horizontala abiapuntu hartuta eta komunitatearen autonomia errespetatuta.

- Politika publikoetako gobernantza partekatuko esperientziak ezagutzea, esaterako emakume-etxeenak —inspirazio-iturri izan daitezke—.